# Behatokia *Inguralde*

## *Txostena:*

*Kontsumoarekiko konfiantza*

**2018**

# Txostena:

# Kontsumoarekiko konfiantza

# Aurkibidea


SARRERA: ....6

Metodologla....8

Galde-sortaren egitura....8

Azterlanaren faseak ....9

Azterketa aldiaren eskala....11

Azterlanak xede duen unibertsoa ....12

HELBURUA:....13

Helburu orokorra....13

Helburua zehatzak ....14

Fitxa teknikoa ....15

AZTERTUTAKO ADIERAZLEAK. ....17

GALDETUTAKOEN KOMENTARIOAK ....22

AZKEN ONDORIOAK ....24

Txostenaren mugak ....32


# Eranskinak


GALDE-SORTA....34

AZTERTUTAKO ALDAGAIEN TAULAK ....42

## Sarrera:

Kontsumitzaileei ekonomiaz oro har duten pertzepzioaz bai eta inguruan duten errealitateaz, haien familia-egoeraz, inguru hurbilaren bilakaeraz eta etorkizunerako igurikimenez, eta aurrezteko gaitasunaz kontsumitzaileei galdetuz haien gastu-asmoa zertan den ezagutzeko aztertzen den ekonomia-adierazlea da **kontsumoarekiko konfiantza**.

Galde-sortetan oinarritua dago datuak lortzeko erabili dugun metodologia; alegia, galdetutakoek emandako erantzunak aztertzean. Galde-sortak prestatu ondoren, herritarrei helarazten zaizkie, lurralde-eremu desberdinetan lan hori antolatzeaz arduratzen diren eragileen bitartez.

Nazioartean, Estatu Batuetako Michigango Unibertsitateak eta Conference Board-ek garatutako lana izan da Crédito Oficial Institutuak egin duen lanaren inspirazio-iturria. Espainian, Institutuak landu izan ditu 2004tik gai honi buruz txostenak. Gaur egun, ISZ/CIS-Ikerketa Soziologikoen Zentroak egiten ditu horrelako azterlanak, hilero iritziak bilduz; 2011n, ekin zion bide horri. ISZk hilero egiten dituen txostenen bidez prestatzen da Kontsumitzailearen Konfiantzaren hileroko Adierazlea (KKA/ICC), eta balio hori hartzen da egungo familia ekonomiaren, ekonomia espainiarraren eta enpleguaren batezbesteko aritmetiko gisa sei hilabete lehenagoko egoerarekin eta hurrengo sei hiletarako galdetutakoek dituzten igurikimenekin alderatzeko.

Autonomia-lurralde mailan, Ikusmer-Merkataritzaren Euskal Behatokia da joeren azterketa, merkataritza-sektorerako azterlanak eta arlo horri lotutako hainbat gairi buruzko aldizkako argitalpenak prestatzen dituena.

Inguralde- Barakaldoko Udaleko Toki Garapenerako Agentziaren Gizarte eta Ekonomia arloko Behatokiak bere inguruko datuak lortu nahi ditu gure udalerriko kontsumitzaileen konfiantza maila eta Barakaldoko enpresa eta saltokietan kontsumitzen dutenen ekonomia egoera orokorra zertan diren eta erosketa joerak norantz doazen azaltzeko.

# Metodologia

Iritzi galde-sorta bat prestatu dugu toki mailako azterlan honetarako. Kalean egin ditugu galderak banaka, eta izenik jaso gabe.

Barakaldoko leku desberdinetan zabaldu ditugu galdetegiak, udalerrian erroldatutako nahiz Barakaldoren ingurutik erosketak egitera nahiz gure enpresetako produktu edo zerbitzua eskatzera etorritakoen artean.

Egin ditugun **350 galde-sortetatik** bakarra baliogabetu dugu, adingabea zelako galde-sorta bete duena.

2**017ko abenduaren 20tik 2018ko urtarrilaren 12ra** arte iraun du **inkesta-aldia**k.

# Proposamenaren egitura

Bost galdera multzotan dago zatitua hogei bat itaunez osatutako galde-sorta.

- Erantzulearen **datu soziodemografikoak**:
  - Erroldatzea.
  - Generoa.

  - Adina.
  - Lan egoera.
- **Egoera sozioekonomikoa**ren azalpena:
  - Barakaldoko **udalerri osoarena.**
  - Galdetutakoaren **familia inguruarena.**
- Aurrezpen maila eta eros-ahalmenaren aukerak.
- Kontsumo maila eta erosteko asmoa.
- **Kontsumo azturen** azalpena.

## Azterlanaren faseak

Hauek dira lan honetan egindako ikerketaren etapak:

- Azterlanaren **helburu nagusia** zehaztea.
- Gaiari buruzko **dokumentazioa** eta informazioa bilatu eta biltzea.
- **Berariazko helburuak** zehaztea.
- **Galde-sorta** diseinatzea.
- **Aurretesta** prestatzea.
- **Galde-sorta** egokitzea.
- Galde-sortaren **akabuko argitaratzea.**
- Galde-sortak xede duen populazioa lokalizatzea.
- Landa lana – Informazio **bilketa**.
- Galde-sortak **gainbegiratu eta kontrolatzea.**

- Bildutako informazioa **kodifikatzea.**
- **Datuen fitxategia** sortzea.
- Informazioa **grabatzea.**
- Datuak **berrikusi** eta araztea**.**
- Datuak **konpilatzeko** fitxategia sortzea.
- Datuak **esportatzea.**
- Datuak **taula bihurtu** eta aztertzea**.**
- **Txostena** idaztea.
- Txostena **berrikustea.**
- Txostena **argitaratzea.**

## Azterketaren denbora eskala



## Azterlanaren xedeko unibertsoa

Barakaldon, edozelako gastu edo kontsumoa egiten duten adinez nagusiak ditu azterlanak xede. Barakaldoko hainbat enpresa motatako hiri saltokien eta merkataritza zentro periferikoen inguruetan zebilen jendeari egin zaio inkesta, errolda kontuan hartu gabe.

Honako auzootan egin da galdeketa:

- Arteagabeitia, Ansio eta Zuhatzun
- Erdialdean, Zaballan
- Gurutzetan, Bakean.
- Lasesarren, Urban Galindon eta Desertun
- Lutxana, Llano eta Burtzeñan
- Retuerton
- Arrontegin
- Santa Teresa, Bagatza eta Beurkon
- San Bizenten

Honako merkataritza-guneetan egin dira galdeketak:

- Max Center-en
- Megapark-en
- Hainbat aldetako hiri dendetan: Erdialdean eta periferiako auzoetan.

# Helburuak:

## Helburu orokorra

Udalerriko kontsumitzailearen konfiantza maila eta aurrezteko ahalmena azaltzeaz gainera, **egungo egoeraren balorazioa** egitea. Aldi berean, gaur egungo erosketa jokaerak erakutsi nahi ditugu, bai eta baloratu ere berariazko zenbait gai, hala nola, erosketak prezio berezietako garaietan; Internet bidezko erosketa, edo kontsumoa aktibatzeko toki-kanpainak ezagutu eta onartzea.

## Helburu zehatzak

- Barakaldoko **orotariko egoera** aztertzea.
- Galdetutakoen **aurrezpen maila** aztertzea.
- Jakitea zein diren gehiago edo gutxiago kontsumitu diren produktu edo zerbitzuak
- Jakitea zein diren kontsumo-ohitura aldaketak

## Fitxa teknikoa

### Esparrua:

udalerria.

### Unibertsoa:

Barakaldoko saltoki eta enpresetan kontsumitzen duten adinez nagusiak.

### Unibertsoaren tamaina:

mugagabea.

### Metodologia:

kuantitatiboa.

### Erabilitako teknika:

banakako galde-sortak, itaun itxi eta irekiko 25 itemez osatuak.

### Laginaren tamaina:

Egindakoak: 350 galde-sorta.

Prozesatuak: 349 galde-sorta.

### Laginketaren prozedura:

Laburpen taulak:

| Adina | Galde-sorta kopurua | |
|---|---|---|
| **18 - 29 urte** | 15 gizonezko - 9 emakumezko | 24 |
| **30 - 39 urte** | 21 gizonezko - 38 emakumezko | 59 |
| **40 – 49 urte** | 44 gizonezko - 34 emakumezko | 78 |
| **50 – 59 urte** | 36 gizonezko - 36 emakumezko | 72 |

| | | |
|---|---|---|
| **60 – 69 urte** | 40 gizonezko - 32 emakumezko | 72 |
| **70 – 90 urte** | 30 gizonezko - 14 emakumezko | 44 |
| **Guztira** | **349** | |

| Sexua | Galde-sorta kopurua |
|---|---|
| **Emakumezkoak** | 163 |
| **Gizonezkoak** | 186 |
| **Guztira** | **349** |

| Errolda | Galde-sorta kop. - Prozedura |
|---|---|
| **Barakaldon** | 309 - 88,5 % |
| **Beste udalerri batzuetan** | 40 - 11,5 % |
| **Guztira** | **349** |

**Laginketarako guneak:**

Barakaldoko udalerri osoko hainbat merkataritza-gunetan egindako galde-sortak.

**Landa-lanaren datak:**

- Galde-sortak egitea: 2017ko abenduko 20 – 2018ko urtarrilak 12
- Datuak honela kodifikatuko dira: abendua, 15 - 17
- Txostena: otsailak 5.

# Aztertutako adierazleak

## Adierazle soziodemografikoak:

**350 lagunek** bete du galde sorta, baina, arestian esan bezala, inkestetako bat gaitzetsia izan da bete duena adingabea zelako. Beraz, **349 galde-sorta**ko lagina izango da behin betiko datuen oinarria.

Hauek dira erantzun dutenen ezaugarriak:

**- Errolda: Barakaldon erroldatutako 309 lagun,** eta beste udalerri batzuetako 40 lagun. Gehienak, inguruko herrietatik etorriak. Hala ere, izan da beste probintzia batzuetako hirietatik bertaratutakorik.




- **Generoa:** galdetutakoetatik, % 53,3 gizonezkoa da, eta % 46,7, berriz, emakumezkoa.

- **Adina:** adin taldeak anitzak dira; gehienek 50 urte inguru dute, eta gazteenak, 19 eta zaharrenak, aldiz, 87.

- **Lan egoera: lanean dihardutenena** da talderik ugariena. Erretiratuena da hurrengo taldea. Talderik txikiena da aurretik lanean jardun ez duten langabeena.

## Ekonomia egoeraren adierazleak:

**- Ekonomia egoera:** Positiboa izan da gehienen balorazioa, eta hobekuntza nabarmenik ikusten ez duten arren, egoerak bere horretan jarraitzen duela adierazi dute. Prezioei dagokienez, denak bat etorri dira produktuen prezioek gora egin dutela adierazterakoan.




Bizitzaren garestiaren eta norberaren egoera pertsonalaren karietara, % 80ak dio momentuotan aurreztea beste aukerarik ez duela. Gainontzeko % 20k, ordea, hobeto bizi dela eta, azken urtean, aurrezteko ahalmena areagotu eta gastua ere handitu ahal izan duela adierazi du.

Produktuen prezioei dagokienez, azken urtean gora egin dutela esan digute. Jakin dugu, gainera, zein diren igoera handiena izan duten produktuak:


Precios
273
76
300
250
200
150
100
50
0
Han Aumentado
Igual


Productos más caros
250
200
150
100
50
0
14
2
1
8
211
1
1
40
13
1
3
1
1
4
36
3
3
3
2
1
Aceite
Autopistas / Peajes
Bebidas
Carne
Cesta de la compra
Colegios / ...
Electrodomésticos
Luz, agua, gas
Frutas y verduras
Gasolina / Diesel
Impuestos
Leche / Lácteos
Libros
Ocio y restaurantes
Otros
Pan
Pescado
Productos de...
Tabaco / Alcohol
Transporte

## Kontsumo-azturen adierazleak:

- Hobetsitako erosketa modua, merkataritza formatuaren arabera**:** gehienek merkataritza tradizionala dute nahiago erosketak egiteko; hiri supermerkatuak dira bigarren aukera. Gutxienek aukeratu dute, ordea, Internet bidezko erosketa.




- **Hobetsitako erosketa modua, deskontu garaian:** oso sustraiturik dago erosketak beherapenetan egiteko ohitura; hala ere, nahiago dituzte ohiko garaiak, gutxi baitira gasturen bat "**Blac Friday**" gisako egun seinalatuetan egiten dutenak.

## Galdetutakoen komentarioak

Komentario bat egiteko aukera eman zaie galde-sorta erantzun dutenei. Gai-adar askori heldu dietenez, kontsumoarekin eta erosketa-aztururekin zerikusi zuzena dutenak aipatuko ditugu ondoren:

***"Barakaldo ha mejorado en los últimos años"***

***"Bajar los precios de todo"***

***"Bono-Barakaldo, usarlo de forma mensual como ayudar a comercios y a gente más desfavorecida"***

***"Bonos más accesibles para comprar"***

***"Facilitar el pago de tasas y impuestos y ayuda para los alquileres de locales comerciales"***

***"Fomentar los negocios en las lonjas vacías"***

***"Hacer algo para incrementar el comercio de zonas como la calle Portu"***

***"Incentivar el pequeño comercio"***

***"Más ayudas sociales para personas sin recursos"***

***"Más ayudas a los comercios locales"***

***"Mejorar la situación del desempleo juvenil"***

***"Mejoras para los barrios periféricos"***

***"Muchos comercios de barrio no devuelven el dinero hacen vales. Y eso es una forma de perder clientes"***

"***Reducir impuestos comerciales como el IBI que ha subido mucho***"

# Azken ondorioak

## Udalerriaren eta norberaren ekonomia-egoera

Udalerriaren egoeraz oro har mintzo direnean, **gehienek uste dute azken urtean hobera egin duela; % 30en iritziz, ordea, berdin jarraitzen du egoerak.** Egoera txarra edo oso txarra da, azkenik, % 10aren arabera. Horrenbestez, gehienen pertzepzioa positiboa eta optimista dela esango genuke.

**El 90%**

**de las personas encuestadas tiene una opinión positiva de la situación**

Norberaren egoerari buruzko iritzia, ordea, ez da horren optimista: galdetutakoen % 75ek erantzun du azken urtean beren egoerak ez duela hobera egin. Hala ere, gehiengo zabal batek adierazi du bere egoera ona dela, eta % 8k, aldiz, egoera txarra edo oso txarra bizi duela.

## Aurrezpena eta eros-ahalmena

**274 personas, casi el 80%**

**no menciona haber renunciado a ninguna compra en los últimos meses**

Produktuen kostuari dagokionez, ez du inork uste prezioak jaitsi direnik. Gehienen ustez, % 78ren ustez, alegia, igo egin dira.

Zein diren gehien garestitu diren produktuak galdetuta, azken urtean "erosketa saskia" dela erantzun dute gehienek, eta, batez ere, "olioa" eta "fruta eta barazkiak". Beste atal batean, % 11,5 erantzun baino gehiagotan, **energia zerbitzuak, argia, ura eta gasa** aipatzen dituzte.

Beste erantzun multzo batek, ordea, bestelako produktu edo zerbitzuak aipatzen ditu, hala nola, zabor bilketa edo prentsa. Bada "dena" garestitu dela dioen erantzun sorta ttiki bat ere.

Zerrendan sartutako hainbat produktu aipatu ere ez dituzte egin, igoerarik izan ez dutelako. Hona hemen zeintzuk diren:

- **Elikadurak, patatek**
- **Autoek**
- **Hipotekek**
- **Botikek**
- **Altzariek eta dekorazioak**
- Garbiketa produktuek
- **Konponketek**
- **Jantziek eta oinetakoek**
- **Aseguruek/Komunitate gastuek**
- **Bidaiek**
- **Etxebizitzek**

Zein diren orain erosten ez dituzten produktuak galdetuta,, **% 80k, 274 lagunek,** alegia, ez du erantzunik eman. Guztizkoaren % 20k , ordea, 75 lagunek, alegia, onartu dute zenbait gauza erosteari utzi behar izan diotela azken hilotan.

Kontsumitzeari utzitako produktu edo zerbitzuak zehazterakoan, berdinduta daude bitan "**aisia edo oporrak, zinema edo jantokiak**" eta "**jantziak edo/eta oinetakoak**" aipatu dituztenak.

Zergatik galdetuta, hona hemen % 33 inguruk erantzundakoa:

- **Ezustekoren bat gertatzekotan, zeozer aurreztuta edukitzea.**
- **Momentu horretan dirurik ez edukitzea horrelako gastua egiteko.**

Gutxi batzuk erantzun dute "**Etorkizuneko erosketetarako aurreztea**" eta "**Senideei laguntza ematea**". Hala ere, galdetutakoen % 50 inguruk ez du inolako arrazoirik eman erosteari utzi behar izana azaltzeko.

**Aurrezteko ahalmenaz** galdetuta, **% 79** dio orain ez daukala **duela hilabete batzuk baino aurrezteko ahalmen handiagorik**. Hala ere, % 60k baino gehiagok dio **bere ekonomia egoera egonkorragoa dela**.

Gastatzeko asmoari dagokionez, erosketak ugaritzeko asmoa duela erantzun du % 12k , bai eta, oro har, gastua handitzekoa ere. Horrek esan nahi du, kontsumo maila eta kontsumoarekiko konfiantza bere onera datorrela apurka.

## Kontsumo maila eta erosteko asmoa

Erosketa maila iazkoa baino handiagoa izateko asmorik baduten galdetuta, oso zuhurra izan da erantzuna: % 87k ezezkoa eman du.

Ondorengo zerbitzu edo produktuotan kontrolatuko dute gastua:

- **Elikaduran**
- **Jantzi, oinetako eta osagarrietan**
- **Etxeko tresna, altzari eta etxeko ekipamenduetan**
- **Informatikan, telefonian edo mugikorretan eta etxeko elektronikan**
- **Liburu eta diskoetan, eta era guztietako oparietan**
- **Norbera edertu eta zaintzeko produktuetan**
- **Bidaietan**

Atal horietan guztietan adierazi dute gastuari bere horretan eusteko intentzioa, baina, % 30tik gorako portzentajean daukate ondorengo produktuetan gastua murrizteko asmoa:

- **Jantzi, oinetako eta osagarrietan,** % 32ean murriztuko dute erosketen maiztasuna.
- **Etxeko tresna, altzari eta etxeko ekipamenduetan,** % 35ean.
- **Informatikan, telefonian edo mugikorretan eta etxeko elektronikan,** % 35ean, baita geroratutako erosketetan ere.
- **Liburu eta diskoetan, eta era guztietako oparietan,** % 30ean.
- **Bidaietan,** % 33an.

Elikagaietan soilik gastatuko da gehixeago: galdetutakoen erantzunen % 10ek baino pixka bat gehiagok.

Galde-sortaren atal bereizi batean, gastu handia eskatzen duten **erosketa handiei** buruz galdetzean, gehienek, % 90ek, alegia, atalean eskainitako kategoria guztietan gastua geroratuko lukete eskaini zaizkien kategoria hauetan guztietan:

- **Autoa**
- **Lehenengo etxebizitza**
- **Bigarren etxebizitza**
- **Informatika eta telefonia edo mugikorra**

**El 100%**

**rechaza la posibilidad de comprar una segunda vivienda**

"Bidaiak" kategorian ere geroratuko luke erantzunen % 50ek. Hala ere, galdetutakoen % 35ek jarrera optimistagoa agertzen ud, urte honetan bidaiaren bat egiteko asmoa duela adierazi baitu.

## Kontsumo azturak

### Merkataritza formatuan:

Merkataritza formatua aukeratzerakoan, barakaldar gehienek nahiago dute (% 80) "**merkataritza tradizionala**" eta, ondoren, "**hiri supermerkatuak**" , "**periferiako azalera handiak**" baino, hori izan baita azkeneko aukera.

**Casi el 80%**

**prefiere realizar sus compras en el "Comercio tradicional"**

**"Internet"** bidezko erosketa-aukera oso txikia da, ez baita % 1era ere iristen galdetutakoen artean bide hori, eta **% 66**k erantzun du **ez duela sekula erosi sarearen** bitartez.

Honela baloratu dute merkataritza formatu bakoitza:

- **Merkataritza tradizionala:** nahiko erosotzat jotzen du galdetutakoen erdiak, bai eta konfiantzazko eta kalitatezkotzat ere. Gainera, arduradunen profesionaltasuna nabarmendu dute.
- **Hiri supermerkatua:** E¡erosotzat eta konfiantzazkotzat jo dute. Bezeroari tratu ona ematen diotela iruditzen zaie.
- **Periferiako azalera handiak:** galdetutakoen ia erdiak baino ez ditu definitu. Kalitatezkotzat jotzen dituzte erositako produktuak.
- **Merkatu txikiak:** ez da izan ia iritzirik, % 70ek ez baitu batere baloraziorik egin salmenta mota horretaz. Ezaugarrien artean, merke izatea.
- **Internet:** beste aukera hau ere ez dute gehienek baloratu, geroxeago ikusiko dugunez. Sarearen bidezko salmentetan, balio gisa jotzen da hala produktuen kalitatea nola produktuen kalitate-prezio erlazioa. Produktuak nahiko merkeak direla irizten diote, gainera.

## Internet bidezko erosketa:

Erosketa aukera honen inguruan berriz ere galdetuta, % 65ek baino gehiagok dio "**Ez duela sekula erosketarik egin Internetez**"

Eta inoiz Internetez erosi dutenen % 17k adierazi du ez duela azken denbora honetan gehiago gastatu modalitate horretan; % 10ek dio baietz, gehiago gastatu duela, eta beste **% 6k,** ordea, azken hilotan erosketa gutxiago egin duela web orrietan.

Internet bidez erosten duen 118 laguneko talde honen lehentasunak dira:

- **Jantziak eta oinetakoak,** neurri handi batean**:** produktu mota desberdinen arteko **% 30.**
- **Elektronikako** produktuak, % 9tik gora.
- **Jostailu** erosketa, **% 7**tik gora.

## Erosketak deskontu garaian:

Gabon aurreko eta osteko asteetan egin da inkesta, deskontu eta prezio bereziko sasoi desberdinek bat egiten dutelako. Galde-sortan, egun horietan jendeak dituen erosketa ohiturei buruzko hainbat galdera egin ditugu.

Hasieran, 2017ko azaroan “Black Friday”-ren karietara erosketarik egin al duten galdetu diegu; galdetutakoen ia % 85ek ezetz esan digu.

Deskontu edo beherapen garaian erosteko asmorik baduten galdetuta, baietz erantzun du ia % 60k. Erosketetan zenbat gastatu duten galdetuta, % 40k esan du aurreikusia zuena gastatu duela; % 12k, ordea, aurreikusitakoa baino gutxiago.

Horrek erakusten digu jende gehienak ez duela azaroan erosteko ohiturarik, nahiz eta saltoki askokeskaintza bereziak egin azkeneko ostiralean edo azkeneko asteburuan, Gabonetako

salmentak aurreratzeko. Barneratuagoa du, ordea, jendeak tradizioz beherapen garaia izan dena, Errege ostekoa, alegia, eta aldez aurretik planifikatu ohi dute gastua.

Horrelako promozioetan erosi ohi ditu...

- **jantziak eta oinetakoak,** oro har, galdetutakoen erdiak.
- eta **haurrentzako jantziak**, zenbaitek.

Ezin ahaztu dugu, ordea, erantzunen % 40 gastua kontrolatzen dutenei dagokiola, jende horrek esan duelako ez duela beherapenetan batere erosteko asmorik.

**Más del 50% conocen el Bono-Barakaldo**

**Pero más del 80% no tiene intención de utilizarlo**

Azkenik, landa-lana egin den garaian **Barakaldo**ko saltokietan deskontu-bonu bereziak eskaintzen direnez, bonuak ezagutzen al dituzten galdetu diegu. Baietz erantzun du **% 56k**, baina **% 80k,** ordea, ezetz erantzun du, ez duela tokiko saltokietan egingo dituzten erosketetan deskontuak lortzeko bonuak baliatzeko inolako asmorik.

## Txostenaren mugak

Mugatua da txostena, ez dugulako Inguralderen Behatoki Sozioekonomikoan aurretik egindako azterlanik, ez eta udal adierazlerik ere. Beraz, ezin konparatu ditugu denboran Barakaldoko kontsumoaren dinamikari buruzko datuak maila berean.

# ERANSKINAK

# Galde-sorta

**Elkarrizketatzailea:** ______________________________ **Galde-sorta zk.:** ______________

**Kaixo, egun on! XXXXXX dut izena, eta, Udalak eskatuta, Barakaldoko kontsumoari buruzko iritzi azterlan bat egiten ari gara. Biziki eskertzen dugu zure iritzia. Labur arituko naiz. Ongi iruditzen zaizu galde-sorta honi erantzutea?**

**ID - 01 Barakaldon zaude erroldatuta?**

❐ Bai Ez

**ID - 02 Zein auzotan?/ Zein udalerritan?**

______________________________________________________________________________________

**ID - 03 Generoa:**

❐ Gizona ❐ Andrea

**ID - 04 Adina:** ______________

**ID - 05 Zein da zure lan egoera?**

❐ Lanean ❐ Erretiratua/Pentsioduna ❐ Ikaslea ❐ Beste bat ____________________

| | | | |
|---|---|---|---|
| ❒ Langabea, lehenago lanean aritua | ❒ Langabea, ez du enplegurik izan | ❒ Etxeko lana, ordaindu gabea | ED/EE |

**1. itauna Azken urte honetan gauzak hobera egin dutela uste al duzu?**

❒ EZ ❒ Bere horretan ❒ Bai

**2. itauna Nola baloratuko zenuke 1etik 5era Barakaldoko egoera orokorra?**

❒ 1. Oso txarra ❒ 2. Txarra ❒ 3. Erdipurdikoa ❒ 4. Ona ❒ 5. Oso ona

**3. itauna Eta zeure egoera, duela urtebetekoa baino hobea da?**

❒ Ez ❒ Bai

**4. itauna Nola baloratuko zenuke 1etik 5era zeure egoera pertsonala?**

❒ 1. Oso txarra ❒ 2. Txarra ❒ 3. Erdipurdikoa ❒ 4. Ona ❒ 5. Oso ona

**5. itauna Zure ustez, duela urtebetekoekin alderatuta, prezioek gora ala behera egin dute edo bere horretan jarraitzen dute?**

❒ Gora ❒ Bere horretan ❒ Behera

**6. itauna Zein produktutan igo dira prezioak gehien, aurten?**(Bat-bateko galdera, ez irakurri, aipatutakoak aukeratu) (Gehienez, 3 erantzun)

❒ Erosketa saskia Elikadura Janaria

❒ Olioa

❒ Okela

❒ Fruta eta barazkiak

❒ Arrautzak

❒ Esnea / Esnekiak

❒ Arraina

❒ Patatak

❒ Ogia

❒ Edariak

❒ Autobideak/ Bidesariak

❒ Autoak

❒ Eskolak/ Unibertsitatea

❒ Etxeko tresnak, Informatika / Teknologia

❒ Energia / Argia, ura, gasa

❒ Gasolina / Diesela

❒ Hipoteka

❒ Zergak

❒ Liburuak / Eskolako materiala

❒ Botikak

❒ Altzariak eta dekorazioa

❒ Aisia eta sukaldaritza (jatetxeak eta tabernak)

❒ Edertzeko produktuak / Norberaren zainketa / Higienea

❒ Garbiketa produktuak

❒ Konponketak

❒ Jantziak eta oinetakoak

❒ Aseguruak/ Jabeen erkidegoa

❒ Tabakoa / Alkohola

❒ Telefonoa / Mugikorra

❒ Garraioa

❒ Bidaiak

❒ Etxebizitza

❒ Beste batzuk________________________________________________

________________________________________________________

**7. itauna Arten iaz baino aukera hobea duzu aurrezteko?**

❒ Ez ❒ Bai

**8. itauna Azken 12 hilotan, zure eros-ahalmena...**

❒ gutxitu egin da ❒ bere horretan jarraitzen du ❒ handitu egin da

**9. itauna Zein dira dagoeneko erosten ez dituzun produktuak edo kontratatzen ez dituzun zerbitzuak azken urte honetan?**

**10. itauna Zerk bultzatu zaitu erosketa bat ez egitera?**

❒ Gastatzeko dirurik ez izateak

❒ Ezustekoren bat gertatzen denerako dirua aurreztu nahiak

❒ Etorkizunean konfiantzarik ez izateak

❒ Kopuru handiagoko etorkizuneko erosketetarako aurrezteak

❒ Lana galtzeari beldurrak

❒ Senitartekoei etorkizunean laguntza eman nahi izateak (gurasoak, seme-alabak...)

❒ Erretirorako dirua aurrezteak

❒ Bizilekua aldatzeak

❒ Beste batzuk______________________________

____________________________________

_

**11. itauna Ba al duzu aurten iaz baino gehiago gastatzeko asmorik?**

❒ Ez ❒ Bai

**12. itauna Ondoren agertzen diren produktuak erosteko maiztasuna... atzeratu, murriztu, bere horretan utzi edo handitu egin duzu?**

| | Elikadura | Jantziak, oinetakoak, osagarriak | Etxeko tresnak, altzariak etxeko ekipamendua | Informatika, tel. mugikorra, etxeko elektronika | Liburuak, diskoak, era guztietako opariak | Edertzeko produktuak, norberaren zainketa | Bidaiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Atzeratu** | | | | | | | |
| **Murriztu** | | | | | | | |
| **Bere horretan utzi** | | | | | | | |
| **Handitu** | | | | | | | |

**13. itauna Iaz erosi nahi zenituen ondorengo produktuetatik zeintzuk utzi zenituen erosi edo kontratatu gabe, eta zeintzuk utzi dituzu etorkizunean erosi edo kontratatzeko?**

| | Autoa | Etxebizitza (lehenengoa) | Etxebizitza (bigarrena) | Informatika, tel. mugikorra / Smartphonea | Bidaiak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Atzeratuta** | | | | | |
| **2018rako, egoera hobetzen bada** | | | | | |
| **2018rako, ekonomia egoera gorabehera** | | | | | |

**14. itauna Zein duzu ohiko merkataritza formatua?** (Erantzun bat baino gehiago baldin badago, zenbakituta ordenatu)

❒ Merkataritza tradizionala (denda txikia eta hurbila)

❒ Hurbileko hiri supermerkatuak (Eroski, Hipercor, BM...)

❒ Periferiako azalera handiak (Max Center, Megapark, Mercadona...)

❒ Merkatu txiki ibiltariak

❒ Internet

❒ Beste batzuk:

________________________________

________________________________

**15. itauna Internet bidezko erosketa:**

❒ Ez dut erosten (→ Zoaz 18. itaunera)

❒ Murriztu egin dut ❒ Lehengo moduan ❒ Handitu egin da

**16. itauna Zer produktu mota erosten duzu Internetez?** (Hiru, gehienez)

**17. itauna Erosi al duzu joan den azaroko Black Friday-eko eskaintzetan?**

❒ Ez ❒ Bai

**18. itauna Erosten al duzu urtarrileko deskontu bereziak (beherapenak) egiten dituztenean? Asmorik?**

❒ Ez ❒ Bai

**19. itauna Sustapen garai berezietako (beherapenak) erosketetan, pentsatutakoa baino diru gehiago, gutxiago ala pentsatutakoa gastatu duzu?**

❒ Batere ez ❒ Gutxiago ❒ Pentsatutakoa ❒ Gehiago

**20. itauna Deskontuak dauzkaten sustapenetan zer produktu erosi (nahi) zenituen?**

**21. itauna Barakaldoko merkataritza kontuan hartuta, baloratu 1etik 5era zer formatu-eskaintza aurki dezakegun**

❒ 1. Batere ez ❒ 2. Gutxi ❒ 3. Zeozer ❒ 4. Nahikotxo ❒ 5. Zabala

| Formatua | Erosoa | Konfiantza | Kalitatea | Merkea | Berritzailea | Tratua | Profesionaltasuna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Merkataritza tradizionala | | | | | | | |
| Hurbileko hiri supermerkatuak | | | | | | | |
| Periferiako azalera handiak | | | | | | | |
| Merkatu txiki ibiltariak | | | | | | | |
| Internet | | | | | | | |
| Beste batzuk | | | | | | | |

## 22. itauna Ezagutzen al duzu erosketetarako BARAKALDO BONUA

❒ Ez ❒ Bai

Barakaldko Hiri Ennpresa eta Merkataritza Elkarteak 20 euroko 5.500 bonu atera ditu 30 euroko erosketa bat egiteko. Udal diru-laguntzak ordainduko ditu 10 euro horiek.

# Aztertutako aldagai taulak

## Adierazle soziodemografikoak:

### - 01 Errolda

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Barakaldon erroldatuak** | **309** | **88,8** |
| Barakaldon erroldatuta ez daudenak | 40 | 11,5 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### - 02 Barakaldoko zein auzotan / Zein udalerritan

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Arteagabeitia, Ansio, Zuhatzu | 35 | 10,0 |
| Erdialdea, Zaballa | 42 | 12,0 |
| Gurutzeta - Bakea | 42 | 12,0 |
| Lasesarre, Urban Galindo, Desertu | 43 | 12,3 |
| Lutxana, Llano, Burtzeña | 46 | 13,8 |
| Retuerto, Errekatxo, Kareaga, Gorostitza | 15 | 4,3 |
| Arrontegi | 15 | 4,3 |
| San Bizente | 34 | 9,7 |
| Sta. Teresa, Bagatza, Beurko | 37 | 10,6 |
| Beste udalerri batzuk | 40 | 11,5 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**Bizkaiko beste bizileku batzuk eta beste probintzia batzuk**

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Amorebieta | 1 | ,3 |
| Astrabudua | 1 | ,3 |
| Basauri | 1 | ,3 |
| **Bilbo** | **11** | **3,3** |
| Erandio | 3 | ,9 |
| Gallarta | 1 | ,3 |
| Getxo | 2 | ,6 |
| Leioa | 2 | ,6 |
| Mungia | 1 | ,3 |
| Muskiz | 1 | ,3 |
| Portugalete | 1 | ,3 |
| Santurtzi | 5 | 1,5 |
| Sestao | 2 | ,6 |
| Trapagaran | 2 | ,6 |
| Ugao Miravalles | 1 | ,3 |
| Zalla | 1 | ,3 |
| Araba | 1 | ,3 |
| Kantabria | 1 | ,3 |
| Guipuzkoa | 2 | ,6 |
| **Guztira** | **40** | **11,5** |

**- 03 Generoa:**

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Gizonak | 186 | 53,3 |
| Emakumeak | 163 | 46,7 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## - 04 Adina:

| | |
|---|---|
| Batezbesteko adina | 51,62 |
| Adin nagusia -. Tartekoa | 52,00 |
| Maizen agertutakoa-Moda | 47 |
| Desbiderapen estandarra | 14,844 |
| **Pertsonak guztira** | **349** |

## - 05 Lan egoera

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Lanean** | **155** | **44,4** |
| Erretiratua/Pentsioduna | 104 | 29,8 |
| Ikaslea | 7 | 2,0 |
| Langabea, aurretik izan du | 48 | 13,8 |
| Langabea, aurretik ez du izan | 9 | 2,6 |
| Etxeko lana | 23 | 6,6 |
| Beste bat | 2 | ,6 |
| Ed/Ee | 1 | ,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 1. itauna Azken urte honetan gauzak hobera egin dutela uste al duzu?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Ez | 100 | 28,7 |
| Bere horretan | 114 | 32,7 |
| **Bai** | **135** | **38,7** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 2. itauna Nola baloratuko zenuke 1etik 5era Barakaldoko egoera orokorra?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| 1. Oso txarra | 8 | 2,3 |
| 2. Txarra | 29 | 8,3 |
| **3. Erdipurdizkoa** | **155** | **44,4** |
| 4. Ona | 150 | 43,0 |
| 5. Oso ona | 7 | 2,0 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 3. galdera Eta zeure egoera, duela urtebetekoa baino hobea da?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez** | **261** | **74,8** |
| Bai. | 88 | 25,2 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 4. galdera Nola baloratuko zenuke 1etik 5era zeure egoera pertsonala?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| 1. Oso txarra | 8 | 2,3 |
| 2. Txarra | 22 | 6,3 |
| 3. Erdipurdizkoa | 116 | 33,2 |
| **4. Ona** | **187** | **53,6** |
| 5. Oso ona | 16 | 4,6 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**5. itauna** **Zure ustez, duela urtebetekoekin alderatuta, prezioek gora ala behera egin dute edo bere horretan jarraitzen dute?**

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Gora egin dute** | **273** | **78,2** |
| Bere horretan | 76 | 21,8 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**6. itauna** **Zein produktutan igo dira prezioak gehien, aurten?**

| | Produktuak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Erosketa saskia** | **211** | **60,5** |
| Olioa | 14 | 4,0 |
| Okela | 8 | 2,3 |
| Fruta eta barazkiak | 13 | 3,7 |
| Esnea / Esnekiak | 1 | ,3 |
| Arraina. | 3 | ,9 |
| Ogia | 3 | ,9 |
| Edariak | 1 | ,3 |
| Autobideak/ Bidesariak | 2 | ,6 |
| Eskolak/ Unibertsitatea | 1 | ,3 |
| Etxeko tresnak | 1 | ,3 |
| **Energia / Argia, ura, gasa** | **40** | **11,5** |
| Gasolina / Diesela | 1 | ,3 |
| Zergak. | 3 | ,9 |
| Liburuak / Eskolako materiala | 1 | ,3 |
| Aisia eta jatetxeak | 4 | 1,1 |
| Edertzeko produktuak | 3 | ,9 |
| Tabakoa / Alkohola | 2 | ,6 |
| Garraioa: | 1 | ,3 |
| Bestelakoak. | 36 | 10,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 7. itauna Aurten iaz baino aukera hobea duzu aurrezteko?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez** | **276** | **79,1** |
| Bai. | 73 | 20,9 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 8. itauna Azken 12 hilotan, zure eros-ahalmena..

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Gutxitu egin da | 108 | 30,9 |
| **Bere horretan** | **229** | **65,6** |
| Handitu | 12 | 3,4 |
| **Guztira:** | **349** | **100,0** |

## 9. itauna Zein dira dagoeneko erosten ez dituzun produktuak edo kontratatzen ez dituzun zerbitzuak azken urte honetan?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Alkohola - Tabakoa | 4 | 1,55 |
| Elikadura | 8 | 3,1 |
| Kontratuak (argia, gasa...) | 3 | 1,1 |
| Futbola | 2 | 0,8 |
| Betaurrekoak: | 1 | 0,4 |
| Informatika | 6 | 2,3 |
| Jostailuak | 1 | 0,4 |
| Liburuak, aldizkariak | 3 | 1,1 |
| **Aisia, bidaiak, zinea, jatetxeak** | **15** | **5,7** |
| Ile-apaindegia, edertzeko produktuak | 3 | 1,1 |

| | | |
|---|---|---|
| Kiroldegia | 1 | 0,4 |
| Prentsa | 2 | 0,8 |
| Etxeko produktuak | 2 | 0,8 |
| Opariak | 1 | 0,4 |
| **Jantziak eta oinetakoak** | **15** | **5,7** |
| Osasun pribatua | 1 | 0,4 |
| Aseguruak. | 5 | 1,9 |
| Kable bidezko telebista | 2 | 0,8 |
| **Erantzunak guztira** | **75** | **28,7** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 10. itauna Zerk bultzatu zaitu erosketa bat ez egitera?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Horretan gastatzeko dirurik ez izateak | 56 | 16,0 |
| **Ezusteko baterako aurreztu nahiak** | **60** | **17,2** |
| Etorkizunean konfiantzarik ez izateak | 7 | 2,0 |
| Etorkizuneko erosketetarako aurrezteak | 24 | 6,9 |
| Lana galtzeari beldurrak | 2 | ,6 |
| Senideei lagundu nahi izateak | 14 | 4,0 |
| Erretirorako dirua aurrezteak | 2 | ,6 |
| Bizilekua aldatzeak | 1 | ,3 |
| Bestelakoak. | 6 | 1,7 |
| Ed/Ee | 177 | 50,7 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 11. itauna Ba al duzu aurten iaz baino gehiago gastatzeko asmorik?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez** | **305** | **87,4** |
| Bai. | 43 | 12,3 |
| Ed/Ee | 1 | 1,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**12. itauna Ondoren agertzen diren produktuak erosteko maiztasuna... atzeratu, murriztu, bere horretan utzi edo handitu egin duzu?**

| Elikadura | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 2 | ,6 |
| Murriztu | 50 | 14,3 |
| **Bere horretan utzi** | **260** | **74,5** |
| Handitu | 37 | 10,6 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Jantziak, oinetakoak, osagarriak | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 6 | 1,7 |
| Murriztu | 114 | 32,7 |
| **Bere horretan utzi** | **206** | **59,0** |
| Handitu | 23 | 6,6 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Etxeko tresnak, altzariak, etxeko ekipamendua | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 122 | 35,0 |
| Murriztu | 34 | 9,7 |
| **Bere horretan utzi** | **173** | **49,6** |
| Handitu | 20 | 5,7 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Informatika, tel. mugikorra, etxeko ekektronika | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 123 | 35,2 |
| Murriztu | 25 | 7,2 |
| **Bere horretan utzi** | **184** | **52,7** |
| Handitu | 17 | 4,9 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Liburuak, diskoak, era guztietako opariak | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 106 | 30,4 |
| Murriztu | 48 | 13,8 |
| **Bere horretan utzi** | **170** | **48,7** |
| Handitu | 25 | 7,2 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Edertzeko produktuak, norberaren zainketa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 8 | 2,3 |
| Murriztu | 42 | 12,0 |
| **Bere horretan utzi** | **283** | **81,1** |
| Handitu | 16 | 4,6 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Bidaiak | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Atzeratu | 118 | 33,8 |
| Murriztu | 39 | 11,2 |
| **Bere horretan utzi** | **179** | **51,3** |
| Handitu | 13 | 3,7 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 13. itauna **Iaz erosi nahi zenituen ondorengo produktuetatik zeintzuk utzi zenituen erosi edo kontratatu gabe, eta zeintzuk utzi dituzu etorkizunean erosi edo kontratatzeko?**

| Autoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Atzeratu** | **329** | **94,3** |
| 2018rako, egoera hobetzen bada | 11 | 3,2 |
| 2018rako, ekonomia-egoera gorabehera | 9 | 2,6 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Lehenengo etxebizitza | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Atzeratu** | **342** | **98,0** |
| 2018rako, egoera hobetzen bada | 6 | 1,7 |
| 2018rako, ekonomia-egoera gorabehera | 1 | ,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Bigarren etxebizitza | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Atzeratu** | **349** | **100,0** |
| 2018rako, egoera hobetzen bada | 0 | ,0 |
| 2018rako, ekonomia-egoera gorabehera | 0 | ,0 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Informatika, tel. / mugikorra / Smartphonea | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Atzeratu** | **311** | **89,1** |
| 2018rako, egoera hobetzen bada | 26 | 7,4 |
| 2018rako, ekonomia-egoera gorabehera | 12 | 3,4 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

| Bidaiak | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Atzeratu** | **173** | **49,6** |
| 2018rako, egoera hobetzen bada | 52 | 14,9 |
| 2018rako, ekonomia-egoera gorabehera | 124 | 35,5 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**14. itauna Zein duzu ohiko merkataritza formatua?** (Erantzun bat baino gehiago baldin badago, zenbakituta ordenatu)

## Lehenengo erosketa aukera:

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Merkataritza tradizionala** | **276** | **79,08** |
| Hiri supermerkatua: | 3 | ,9 |
| Ed/Ee | 70 | 20,0 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## Bigarren erosketa aukera:

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Hiri supermerkatua** | **314** | **89,97** |
| Periferiako azalera handiak | 1 | ,3 |
| Internet | 1 | ,3 |
| Ed/Ee | 33 | 9,46 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## Hirugarren erosketa aukera:

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Periferiako azalera handiak** | **195** | **55,87** |
| Internet | 2 | ,57 |
| Ed/Ee | 152 | 43,55 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 15. itauna Internet bidezko erosketa:

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez dut erosten** | **231** | **66,2** |
| Murriztua | 21 | 6,0 |
| Bere horretan utzia | 62 | 17,8 |
| Handitua | 34 | 9,7 |
| Ed/Ee | 1 | ,3 |

| | | |
|---|---|---|
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

## 16. itauna Zer produktu mota erosten duzu Internetez?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Askotariko osagarriak | 3 | ,9 |
| Elikadura | 6 | 1,8 |
| Kiroletako gauzak | 3 | ,9 |
| Bigarren eskuko gauzak | 1 | ,3 |
| Etxeko tresnak | 7 | 2,1 |
| Elektronika: | 11 | 3,3 |
| Sarrerak | 2 | ,6 |
| Informatika | 7 | 2,1 |
| Jostailuak | 9 | 2,7 |
| Liburuak. | 5 | 1,5 |
| Argazkilaritzako materiala | 1 | ,3 |
| Mugikorrak | 4 | 1,2 |
| Perfumeria, ile-apainketa | 2 | ,6 |
| Etxeko eta garbiketarako produktuak | 3 | ,9 |
| Opariak | 6 | 1,8 |
| Erlojuak | 4 | 1,2 |
| **Jantziak eta oinetakoak** | **35** | **10,5** |
| Kirol jantziak | 3 | ,9 |
| Tabakoa | 1 | ,3 |
| Guztia | 1 | ,3 |
| Oporrak | 4 | 1,2 |
| Erantzunak guztira | 118 | 35,4 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 17. itauna Erosi al duzu joan den azaroko Black Friday-eko eskaintzetan ?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez** | **296** | **84,8** |
| Bai. | 53 | 15,2 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 18. itauna Erosi al duzu urtarrileko deskontu bereziak (beherapenak) egiten dituztenean? Asmorik?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Ez | 140 | 40,1 |
| **Bai** | **208** | **59,6** |
| 2 | 1 | ,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 19. itauna Sustapen garai berezietako (beherapenak) erosketetan, pentsatutakoa baino diru gehiago ala gutxiago edo pentsatutakoa gastatu duzu?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Batere ez | 137 | 39,3 |
| Gutxiago | 44 | 12,6 |
| **Pentsatutakoa** | **148** | **42,4** |
| Gehiago | 20 | 5,7 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 20. itauna Deskontuak dauzkaten sustapenetan zer produktu erosi (nahi) zenituen?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Etxeko gauzak | 2 | ,6 |
| osagarriak | 1 | ,3 |
| Etxeko tresnak | 3 | ,9 |
| Lanabesak | 1 | ,3 |

| | | |
|---|---|---|
| Jostailuak | 3 | ,9 |
| Liburuak | 1 | ,3 |
| Ikusten dudana, ezer berezirik ez | 1 | ,3 |
| Mugikorra | 1 | ,3 |
| Altzariak | 2 | ,6 |
| Opariak | 3 | ,9 |
| Haurrentzako jantziak | 20 | 6 |
| **Jantziak eta oinetakoak** | **174** | **52,2** |
| Erantzunak guztira | 212 | 63,9 |
| **Ez dute erosketak egiteko batere asmorik** | **137** | **39,3** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

**21. itauna Barakaldoko merkataritza kontuan hartuta, baloratu 1etik 5era zer formatu-eskaintza aurki dezakegun**

## Merkataritza tradizionala

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erosoa | | Konfiantza | | Kalitatea | |
| Batere ez | 1 | ,3 | 1 | ,3 | 0 | ,0 |
| Txikia | 2 | ,6 | 2 | ,6 | 1 | ,3 |
| Pixka bat | 11 | 3,2 | 13 | 3,7 | 24 | 6,9 |
| **Nahiko** | **186** | **53,3** | **178** | **51,0** | **188** | **53,9** |
| Oso/Handia | 73 | 20,9 | 79 | 22,6 | 60 | 17,2 |
| Ed/Ee | 76 | 21,8 | 76 | 21,8 | 76 | 21,8 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Merkea | | Berritzailea | | Tratua | | Profesionaltasuna | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Batere ez | 3 | ,9 | 6 | 1,7 | 0 | ,0 | 0 | ,0 |
| Ez oso | 51 | 14,6 | 54 | 15,5 | 1 | ,3 | 2 | ,6 |
| **Zertxobait** | **158** | **45,3** | **122** | **35,0** | 11 | 3,2 | 15 | 4,3 |
| Nahiko | 50 | 14,3 | 78 | 22,3 | 148 | 42,4 | 151 | 43,3 |
| Oso/Handia | 11 | 3,2 | 12 | 3,4 | **113** | **32,4** | **105** | **30,1** |
| Ed/Ee | 76 | 21,8 | 77 | 22,1 | 76 | 21,8 | 76 | 21,8 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

## Hiri supermerkatua

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Erosoa** | | **Konfiantza** | | **Kalitatea** | |
| Batere ez | 0 | ,0 | 4 | 1,1 | 1 | ,3 |
| Ez oso | 3 | ,9 | 3 | ,9 | 5 | 1,4 |
| Zertxobait | 21 | 6,0 | 58 | 16,6 | 69 | 19,8 |
| **Nahiko** | **221** | **63,3** | **221** | **63,3** | **218** | **62,5** |
| Oso/handia | 75 | 21,5 | 34 | 9,7 | 27 | 7,7 |
| Ed/Ee | 29 | 8,3 | 29 | 8,3 | 29 | 8,3 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Merkea** | | **Berritzailea** | | **Tratua** | | **Profesionaltasuna** | |
| Batere ez | 6 | 1,7 | 14 | 4,0 | 3 | ,9 | 0 | ,0 |
| Ez oso | 37 | 10,6 | 42 | 12,0 | 12 | 3,4 | 12 | 3,4 |
| **Zertxobait** | **171** | **49,0** | **135** | **38,7** | 45 | 12,9 | 47 | 13,5 |
| Nahiko | 98 | 28,1 | 119 | 34,1 | **209** | **59,9** | **200** | **57,3** |
| Oso/Handia | 8 | 2,3 | 10 | 2,9 | 51 | 14,6 | 62 | 17,8 |
| Ed/Ee | 29 | 8,3 | 29 | 8,3 | 29 | 8,3 | 28 | 8,0 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

## Supermerkatu handiak

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erosoa | | Konfiantza | | Kalitatea | |
| Batere ez | 8 | 2,3 | 8 | 2,3 | 2 | ,6 |
| Ez oso | 19 | 5,4 | 18 | 5,2 | 8 | 2,3 |
| Zertxobait | 35 | 10,0 | 47 | 13,5 | 44 | 12,6 |
| **Nahiko** | **99** | **28,4** | **109** | **31,2** | **129** | **37,0** |
| Oso/Handia | 36 | 10,3 | 14 | 4,0 | 13 | 3,7 |
| **Ed/Ee** | **152** | **43,6** | **153** | **43,8** | **153** | **43,8** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Merkea | | Berritzailea | | Tratua | | Profesionaltasuna | |
| Batere ez | 5 | 1,4 | 4 | 1,1 | 6 | 1,7 | 2 | ,6 |
| Ez oso | 17 | 4,9 | 11 | 3,2 | 15 | 4,3 | 12 | 3,4 |
| **Zertxobait** | **84** | **24,1** | 50 | 14,3 | 45 | 12,9 | 40 | 11,5 |
| Nahiko | 83 | 23,8 | **120** | **34,4** | **113** | **32,4** | **119** | **34,1** |
| Oso/Handia | 7 | 2,0 | 10 | 2,9 | 17 | 4,9 | 22 | 6,3 |
| **Ed/Ee** | **153** | **43,8** | **154** | **44,1** | **153** | **43,8** | **154** | **44,1** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

## Merkatu txikia

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erosoa | | Konfiantza | | Kalitatea | |
| Batere ez | 4 | 1,1 | 11 | 3,2 | 10 | 2,9 |
| Ez oso | 15 | 4,3 | 23 | 6,6 | 26 | 7,4 |
| Zertxobait | 22 | 6,3 | **29** | **8,3** | **34** | **9,7** |
| **Nahiko** | **38** | **10,9** | 28 | 8,0 | 21 | 6,0 |
| Oso/Handia Oso/Handia | 13 | 3,7 | 1 | ,3 | 1 | ,3 |
| **Ed/Ee** | **257** | **73,6** | **257** | **73,6** | **257** | **73,6** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Merkea** | | **Berritzailea** | | **Tratua** | | **Profesionaltasuna** | |
| Batere ez | 6 | 1,7 | 18 | 5,2 | 6 | 1,7 | 9 | 2,6 |
| Ez oso | 8 | 2,3 | **29** | **8,3** | 12 | 3,4 | 13 | 3,7 |
| Zertxobait | 27 | 7,7 | 25 | 7,2 | 31 | 8,9 | 26 | 7,4 |
| **Nahiko** | **42** | **12,0** | 19 | 5,4 | **34** | **9,7** | **31** | **8,9** |
| Oso/Handia | 9 | 2,6 | 1 | ,3 | 9 | 2,6 | 13 | 3,7 |
| **Ed/Ee** | **257** | **73,6** | **257** | **73,6** | **257** | **73,6** | **257** | **73,6** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

## Internet

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Erosoa** | | **Konfiantza** | | **Kalitatea** | |
| Batere ez | 1 | ,3 | 2 | ,6 | 0 | ,0 |
| Ez oso | 0 | ,0 | 8 | 2,3 | 2 | ,6 |
| Zertxobait | 3 | ,9 | 33 | 9,5 | 27 | 7,7 |
| **Nahiko** | **31** | **8,9** | **65** | **18,6** | **77** | **22,1** |
| Oso/Handia | 79 | 22,6 | 7 | 2,0 | 9 | 2,6 |
| **Ed/Ee** | **235** | **67,3** | **234** | **67,0** | **234** | **67,0** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** |

| | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Merkea** | | **Berritzailea** | | **Tratua** | | **Profesionaltasuna** | |
| Batere ez | 0 | ,0 | 0 | ,0 | 53 | 15,2 | 9 | 2,6 |
| Ez oso | 5 | 1,4 | 2 | ,6 | 6 | 1,7 | 9 | 2,6 |
| Zertxobait | 30 | 8,6 | 13 | 3,7 | 20 | 5,7 | 28 | 8,0 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Nahiko** | **68** | **19,5** | **62** | **17,8** | **35** | **10,0** | **53** | **15,2** |
| Oso/Handia | 12 | 3,4 | 38 | 10,9 | 1 | ,3 | 16 | 4,6 |
| **Ed/Ee** | **234** | **67,0** | **234** | **67,0** | **234** | **67,0** | **234** | **67,0** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** | **349** | **349** | **100,0** | **349** | **100,0** | **100,0** |

### 22. itauna Ezagutzen al duzu erosketetarako BARAKALDO BONUA?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Ez | 153 | 43,8 |
| **Bai** | **196** | **56,2** |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 23. itauna Erabili al duzu BARAKALDO BONUA zeure erosketetan?

| | Pertsonak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| **Ez** | **290** | **83,1** |
| Bai. | 59 | 16,9 |
| **Guztira** | **349** | **100,0** |

### 23. itauna Erabili al duzu BARAKALDO BONUA zeure erosketetan?

❒ Ez ❒ Bai

### 24. itauna Amaitu aurretik, esan nahi al duzu besterik?

**Eskerrik asko, zure laguntzagatik".**